



PASEO

(Euskaraz)

GIDATUA

**Herri-
memoria,
36ko
uztaila
Egian**



Hizlaria: Josexo Otegi

2022ko maiatzaren 28an

Babeslea:



TEILA
FABRIKA



GORDEGIA

EGIAKO ARTXIBATEGI GRAFIKOA

HERRI MEMORIA LANTZEN 1936KO GERRA EGIAN

Ibilbide Historikoa



1) Hasiera: Lauhaizeta ikastetxea (Gabriel Aresti, 165)

Hemendik abiatuko da ibilbidea. Azalpen bat emango da ibilbideak landuko duen une historikoa denboran eta espazioan kokatzeko: 1936ko uztailak 18-28

-INTRO OROKORRA.

-EGIA:



Fuó el barrio de Eguía el que levantó la primera barricada en San Sebastián. Con materiales de la Fábrica de ladrillos, todo el vecindario rivalizó en cortar la comunicación por carretera con Loyola, permaneciendo desde el primer momento en la calle

UZTAILAK 19 igandea:

Egiako gainan, Loiolara doan errepidean, **barrikada** handi bat jarri zen, ibilgailuen igarotzea oztopatzeko. Bizilagunek **adreilu lantegiko** (egun Egia kaleko 5. ataria dagoen tokian zegoen) materiala erabili zuten barrikada sendoak eraikitzeko.




Adreilu fabrika gerra eta gero


UZTAILAK 21-22 GAUA asteazkena:

Uztailaren 21etik 22rako gauean altxamendu faxista azkenean martxan jarri zen Donostian. Hiri osoan zehar frankotiratzaile ezkutua (garaian herri mailan *pako* izenarekin ezagunak) tiro egiten zuten bai milizianoei, baita batzutan jende arruntari, hirian izua zabaltzeko. Loiolako matxinatutako militarrek Donostiaren jabe egiteko plan bat jarri zuten abian.

Militarrak Loiolako kuarteletik atera ziren eraikinaren inguruan defentsa perimetro bat antolatzeko, edozein erasoarengandik babesteko:



Egian, kapitain batek agintzen zituen 100 soldadu **Polloeko hileritik 150 metrora aurkitzen ziren baserriak** hartu zituzten (egungo Gabriel Aresti kalean dauden baserriak dira), bertatik Loiolako kuartelak menderatzen baitira.



1936ko Polloe hilerri inguruan izandako borroka pairatu zituzten baserriak (egun zutik daudenak), Ametzagañatik ikusiak. Los caseríos (actualmente en pie) que sufrieron los combates desarrollados en torno al cementerio de Polloe en 1936, vistos desde Ametzagaña
2014

Gainera, Aldakonea aldean dagoen **Behartsuen Ahizpen komentua** hartu zituen mendean, bertatik Okendo kalean zegoen Gobernu Zibila eta *Maria Cristina* hotela kontrolpean izateko aukera baitzuten. **Ametzagaña** mendia ere hartu zuten



Militarrek Ametzagañan 155 mm.ko bi kanoi jarri zituzten.
Los militares colocaron dos cañones de 155 mm.en Ametzagaña
1936

UZTAILAK 24 ostirala: Militar matxinatuek **Ametzagañako** posizioa utzi zuten eta miliziano errepublikazaleek segidan okupatu zuten, egun hartatik aurrera setiaturik izango zuten Loiolako kaserna eraso. **Polloeko** posizioei eutsi egin zioten militar matxinatuek. Loiolako kuartelaren setioaren hasiera

UZTAILAK 28 asteartea : Loiolako kasernaren aurrean dagoen zubian matxinatutako militarrek errenditu ziren ofizialki, negoziazioen ostean, altxamendu faxista erabat menderatuta geratu zelarik Donostian

2) Udaraberri etxea (Gabriel Aresti, 158-160)

Bertatik oso ondo ikusten da Loiolako koartela eta Gabriel Aresti ibilbidea. Bertan eta inguruko baserrietan izandako borrokek azalduko dira.

UZTAILAK 21-22 GAUA asteazkena

Egian, kapitain batek agintzen zituen 100 soldadu **Polloeko hilerritik 150 metrora aurkitzen ziren baserriak** hartu zituzten (egungo Gabriel Aresti kalean dauden baserriak dira), bertatik Loiolako kuartelak menderatzen baitira. Gainera, Aldakonea aldean dagoen **Behartsuen Ahizpen komentua** hartu zituen mendean, bertatik Okendo kalean zegoen Gobernu Zibila eta *Maria Cristina* hotela kontrolpean izateko aukera baitzuten. **Ametzagaña** mendia ere hartu zuten

Zer gertatu zen Polloe inguruko baserri horietan?



Udaraberri baserria
Caserio Udaraberri
2014

“**Udaraberri**”: Soldaduek hartu zuten 1899an eraikitako baserri hau, bertatik errepublikazaleen Txurkoene baserriko posizioak tirokatzeko. Udaraberri borrokan ondorioz kalteak jasan zituen: garajea suntsitu zioten eta baratza ere kaltetua izan zen, inguruko beste baserri askorekin gertatu bezala.

“**Txurkoene**”: Hala soldadu matxinatuek, nola miliziano errepublikazaleek gotorleku gisa erabili zuten. Soldadu matxinatuek eraso egiten zioten Txurkoeneko posizioari Moskotege, Udaraberri, Lorentzioenea eta Etxetxo baserrietatik.



Ezkerretara Txurkoenea baserria.
Erdialdean, milizianoen bat-batean blindatutako bi kamioi
1936ko uztailak



“**Moskotegi**”: Egun desagertua.



Lorenzienea Aundi eta Txiki baserriak
Los caseríos Lorenzienea Aundi y Txiki
2014

“**Lorenziene Aundi eta Txiki**”: Bertatik, errepublikazaleek Txurkoenea baserrian harturiko posizioen aurka tiro egiten zuten. Lorentzioenea Txikik granadek eragindako hainbat zulo zituen, eta baratzeak kalteak zituen hainbat balazoen ondorioz. Horrez gain, soldaduen arpilatzeak ere jasan zituzten: arropa, koltxoiak, 100 oilo baino gehiago...

“**Etxetxo**”:


Soldaduek Etxetxo baserria okupatu eta arpilatu egin zuten: hamar oilo inguru, arropa... kendu zizkieten, plazara esnea saltzera joatea galarazteaz gain.



“**Zamarra**”: Baserri honetako bizilagunetako bat eritasunagatik ohean zegoenez, sendi osoa baserrian geratu zen. Beraien elikagaiak nola arpilatzen zituzten ikusi zuten: oilo bat, baxera, patata zorroak, lekak, etab.

“**Tuniz Berri**”: Egun desagertua.

“**Igola**”: Egun desagertua.



“**Sibilia Haundi**”:
Egun desagertua.

“**Sibilia Txiki**”:
Egun desagertua.

Sibili Txikia baserria.
1936ko borroketan kalte handiak jasan zituen.
Hiru egunez, 22 pertsona sukaldean gordeta egon ziren
(Foto: Lazcano, P. "Historia de San Sebastián, Altza e Intxaurrenondo")

Militarrek Loiolako kuartelaren atzealdean dagoen **Ametzagaña mendia** ere hartu zuten: Bertan **155 mm-ko bi kanoi** eta metrailadore batzuk jarri zituzten, handik Polloeko hilerrian zeuden milizianoen posizioak erasotuz. Gainera, milizianoek Loiolako kuartelaren ur-hornidura moztu zituzenez, militarrek Ametzagañatik lortzen zuten behar zuten ura.



Militarrek Ametzagañan 155 mm-ko bi kanoi jarri zituzten.

Handik hurbil zegoen **Otxoki** baserria (Intxaurrenondon, egun desagertua) ere hartu zuten, bertatik metrailadore eta fusileriaz erasotzen zituztelarik indar errepublikazaleak.



Loiolako kuartelen atzealdean zegoen **Ubako erreformatorioan** ere gotortu ziren soldaduak, Martutenetik etorri zitezkeen balizko erasoengandik babesteko.

Ubako babesetxea eta kaserna atzeko basotik ikusia



UZTAILAK 23 osteguna

Goizean, militarrek erasoaldi berri bat egiten saiatu ziren Donostian barrena, baina kuarteletik atera bezain pronto atzera egin behar izan zuten, **Loiola eta Egia auzoak lotzen dituen zubia ia guztiz eraitsita** baitzegoen, milizianoek **lehergailuz** egindako kalteen ondorioz.

UZTAILAK 24 ostirala:

Militar matxinatuek **Ametzagañako** posizioa utzi zuten eta miliziano errepublikazaleek segidan okupatu zuten, egun hartatik aurrera setiatu izango zuten Loiolako kaserna erasoz. **Polloeko** posizioei eutsi egin zioten militar matxinatuek. **Loiolako kuartelaren setioaren hasiera**

Milizianoek kuartelaren atzealdeko mendixkan posizioak hartu zituzten, **Ubako babes etxearen** inguruan. Bertatik, militarrek kuartelaren patioan **San Marko** (Errenteria) eta **Txoritokietako** (Astigarraga) gotorlekuetara begira (bertatik errepublikazaleek bonbardatzen baitzituzten) jarritako lau obusen aurka egiten zuten tiro errepublikazaleek, obusak erabili zituzten galaraziz. **Zorroagako Misericordia etxearen** inguruetatik ere tiro egiten zieten milizianoek. Aldiz, **Polloeko posizioei eutsi** egin zioten militar matxinatuek. Milizianoek hegazkin zibil txiki batekin kuartela bonbardatu zuten. Hegazkina Sebastian San Vicentek pilotatu zuen, Gasteizko zinegotzia, Gasteizen arrakasta izan zuen estatu kolpe faxistatik ihes egin ondoren Donostiara iritsi zelarik.

UZTAILAK 25 larunbata


Loiolako kuartelaren setioa jarraitu zuen. Milizianoek hegazkin zibil txiki batekin kuartela bonbardatu zuten berriz.

UZTAILAK 26 igandea

Madriletik etorritako **Errepublikako hiru motorreko hegazkin** batekin Loiolako kuartela bonbardatu zuten. Injineruen kuarteleko hegal bat kaltetu zuen, 6 zauritu eraginez. Soldaduen borrokatzeko grina asko ahuldu zuten ekintza hark.

UZTAILAREN 27 astelehena:

Milizianoek **Guadalupeko** (Hondarribi) gotorlekutik ekarritako **275 mm-ko obus** batekin (12 tona inguru pisatzen zuen) Loiolako kuartela bonbardatu zuten, Amarako Gainatik: Lehenengo tiroa kuartelaren aurrean erori zen; bigarrena, kuartelaren gainetik igaro zen; hirugarrena eta laugarrena kuartelaren barruan erori ziren. Loiolako soldadu asko desertatu egin zuten, esate baterako **Ametzagañako 3. posizioan zeuden 28 soldadu: horietako batzuk inguruko baserri batean ezkutatu**



ziren, beste batzuk Diputazioraino joan ziren bertan entregatzeko. Militarrek kuartelean preso zegoen soldadu bat, Ignacio Aramendi, bidali zuten mezulari bezala Diputaziora gutun batekin, non errendizioaren baldintzak azaltzen zituzten.

UZTAILAK 28, asteartea:

Loiolako kasernaren aurrean dagoen zubian matxinatutako **militarrak errenditu** ziren ofizialki, negoziazioen ostean, altxamendu faxista erabat menderatuta geratu zelarik Donostian. **Agintari Batzordearen aurrean** amore eman zuten, milizianoen beldur baitziren (Aginte ofizial baten babesa bilatzen zuten). Agintari Batzorde hori, une hartan Donostiako Herria ordezkatzeko zuena, bost diputatuek osatzen zuten: **Rafael Pikabea (PNV)**, **Juan Antonio Irazusta (PNV)**, **Miguel Amilibia (PSOE)**, **Jose María Lasarte (PNV)**, **Manuel Irujo (PNV)**. Horiez gain, **Augusto Perez Garmendia komandantea** eta **Jesus Larrañaga (PCE)** present zeuden.

Bitartean, **CNTko** kideek Loiolako **koartelako atzeko aldetik** sartu eta fusil gehienak eraman zituzten. Krisia piztu zuen horrek koalizio antifaxistan.

Loiolan preso hartutakoak arraina garraiatzeko erabiltzen ziren kamioietan eraman zituzten Diputaziora (metalezkoak eta itxiak baitziren). Artilleria eta Injineruen erregimentuetako banderak Diputazioko balkoi nagusian jarri ziren.

3) Txurkoenea baserria (Gabriel Aresti, 14-16)

Bertan eta inguruko baserrietan izandako borroka azalduko dira.

UZTAILAK 21-22 GAUA asteazkena

Egian, kapitain batek agintzen zituen 100 soldadu Polloeko hilerrietik 150 metrora aurkitzen ziren baserriak hartu zituzten (egungo Gabriel Aresti kalean dauden baserriak dira), bertatik Loiolako kuartelak menderatzen baitira.



“Txurkoene”: Kokapen estrategiko bikaina zuenez borroka gogorak izan ziren bertan. Ondorioz, baserria suntsiturik bukatu zuen. Hala soldadu matxinatuek, nola miliziano errepublikazaleek gotorleku gisa erabili zuten. Soldadu matxinatuek eraso egiten zioten Txurkoeneko posizioari Moskotegei, Udaraberri, Lorentzioenea eta Etxetxo baserrietatik. Etxe-aurrea eta alboetako hormak tiroz josi zituzten, eta mendebaldeko

paretan zulo handi bat egin zuen Loiolako kasernatik botatako kanoikada batek. Baserriko zaldi bat hilda suertatu zen.

4) Polloeko sarrera (Gabriel Aresti)

Bertan eta inguruko baserrietan izandako borroka azalduko dira. Ondoren, Polloeko hilerriaren barrena abiatuko gara.



1936 Milizianoak aurrera egiten Polloeko hilerrian



UZTAILAK 21-22 GAUA asteazkena

“Moskotegi”: Egun desagertua. Matxinatutako militarrek **27 urteko Moskotegiko Miguel Alkiza gaztea hil zuten**, baita zaldi bat ere, eta bertakoei ondasunak lapurtu zizkieten. Moskotegi baserrian tiratzaile trebeak kokatu ziren, bertatik Polloe hilerrian

eta Txurkoena baserrian errepublikazaleek zituzten posizioak erasotzeko. Moskotegei baserriko sei belar meta erre zituzten tiro egiteko zelai garbiak izateko.

Polloe inguruko baserrietan jardun zuten soldaduen artean oso tiratzaile trebeak zeuden: **Loiolako kasernan tiro lehiaketa** bat antolatu zen aurreko egunetan, non zazpi erregimentuetako zazpi patruila (11 soldaduez osatuak) parte hartu behar zuten. Milizianoen artean hildako ugari eragin zituzten.

UZTAILAK 25 larunbata

Gauean, bi miliziano Moskotegeira hurbildu eta **botila su-eragileekin eraso** egin zuten. Borroka egun guztien ondorioz, baserriak kalte handiak jasan zituen.

5) Zona 4, San Maximo kalea (Polloeko hilerria)

Hemen aipatuko da nola toki honetan 1931ko maiatzak 27ko Ategorrietako sarraskian hildako 7 langileak bertan hilobiratuta egon ziren. Gertatutako sarraskia laburki azalduko da.



Sibilia Aundi baserria.
1936ko borroketan ez zituen kalte asko jasan

Bestalde, hemendik ikus daiteke non kokatzen zen **Sibilia** baserri zaharra. Bertan gertatutakoa azalduko da.

UZTAILAK 21-22 GAUA asteazkena

Egian, kapitain batek agintzen zituen 100 soldadu Polloeko hilerritik 150 metrora aurkitzen ziren baserriak hartu zituzten (egungo Gabriel Aresti kalean dauden baserriak dira), bertatik Loiolako kuartelak menderatzen baitira.

“**Tuniz Berri**”: Egun desagertua. Tunis Berri baserriak bi solairu zituen. Soldaduek, bertan izan ziren egunetan, eraikina arpilatu zuten: lehen solairuko familiari bederatziz txerri lapurtu zizkieten. Bigarren solairutik, berriz, arropa, ezkontzako eraztunak, familiako hainbat bitxi, bi libreta (horietako batek 250 pezeta zituen) eta 800 pezeta gordetzen zituen diru-zorro bat eraman zituzten. Dirua zeraman ingeniari ofizialak, “*Frente Popularrekoek lapurtu ez zezaten*” hartu zuela esan zuen.

“**Igola**”: Egun desagertua. Soldaduek baserria hartu eta lur zakuak jarri zituzten leiho guztietan. Egun guztietan zehar izandako borroken ondorioz etxeak kalte handiak jasan zituen (paretak alde askotan zulaturik aurkitzen ziren), eta elikagaiak nahiz gauza baliotsuak arpilatu zituzten.

“**Sibilia Haundi**”: Egun desagertua. Kalte txikiak jasan zituen.


“**Sibilia Txiki**”: Egun desagertua. Egun guztietan zehar izandako borroken ondorioz kalte handiak izan zituen: bi suen artean harrapaturik aurkitzen zen. Alde batean, Moskotegi baserrian lubakituriko soldadu matxinatuak, eta bestean, Ategorrietatik gorantz zetozen milizianoak. Baserriko 22 biztanleek, horien artean 14 haur, hiru egun pasa behar izan zituzten baserriaren beheko aldeko sukaldean babesturik.

6) Panteoi militarra (Polloeko hilerrria)

Hemen azalduko da nola Errepublikaren aurkako altxamenduan eta ondorengo hilabetetan (borroketan edo Errepublikak fusilatuak) hildako matxinatuen omenez panteoi hau eraiki zen. Aldiz, Errepublikaren alde, Iraultzaren alde edo Euskal Herriaren alde eroritakoen omenez ez dago panteoirik.

Polloeko hilerrian bada "**Jainkoaren eta Espainiaren idealak defendatzeagatik eraildako oroimenez**" eraikitako panteoi militar bat, “Otoitz bat haien arimengatik” eskatzen diguna. 1940an izan zen eraikia. Bertan gerra zibilean zehar hainbat toki zein egoeratan (fusilatzea, frontea...) hil ziren Errepublikaren aurkako donostiar guztiak daude. Iñaki Egañaren arabera, fusilatutako errepublikazale donostiar batzuen gorpuzkiak Polloeko hilerriko hobi komun batera eramán zituzten, eta beste batzuk panteoi honetan sartu zituzten haien sendiek jakin gabe. Polloen ez dago inongo panteoirik espainiar Errepublikaren edo Euskadiren alde hildakoen omenez.

2022 MAITZAK 16: Aranzadi Zientzia Elkarteak, Donostiako Udaletxeak eskatuta ikerketa egin eta identifikatu ditu bertan hilobiratuta dauden 17 antifaxista. Irakurri zerrenda. Plaka erreiratu da Udaletxearen aginduz.



7) Polloeko sarrera (Polloe plaza, 2)

Hemen azalpenak fusilamenduen ingurukoak izango dira, bai errepublikazaleek baita errepublikaren aurka matxinatuek egindakoak.

Epealdi errepublikanoan, Aizpuruaren arabera (2007), errepublikazaleen preso izandako Jose Etxeandiak, **Frente Popularrak 300 pertsona inguru fusilatu** zituela kalkulatu zuen 1945ean, eta aldiz Iñaki **Egañak**, orain gutxi, **280** izan zirela adierazi du. Fusilatze hauek domeinu errepublikanoak iraun zuen 55 egunetan burutu ziren.

Barrusoren arabera (2005), **bat-bateko bortizkeria** bat izan zen errepublikazaleen aldetik (Donostiako Defentsarako Batzordea finkatzen joan zen neurrian beherantz egin zuena), eta **beste bat instituzionalizatua** (auzitegi herritarrak), irailaren 13ra arte mantendu zena eta itsasontzietako bonbardaketek nahiz errepublikazaleen aurkako fusilatzeek eragindako errepresaliek ezaugarritzen zutena.



Donostian fusilatzeak izan ziren tokietako bat, Polloe hilerriaren aurrean kokaturiko plaza izan zen. Bertan hainbat fusilatze izan ziren, hala nola: **abuztuaren 19an**, **irailaren 4ean**, **irailaren 5ean** (auzitegi herritar batek epaituriko 17 pertsona), **irailaren 6ean** (7 pertsona), **irailaren 7an** (14 pertsona), irailaren 9an...

8) Behartsuen Ahizpen komentua (Konkorrenea 23)

Hemen azalduko da eraikin honetan gertatutakoak eta zergatik (Eraikinaren kokapen estrategikoa)

UZTAILAK 21-22 GAUA asteazkena:

Uztailaren 21etik 22rako gauean altxamendu faxista azkenean martxan jarri zen Donostian. Loiolako matxinatutako militarrek Donostiaren jabe egiteko plan bat jarri zuten abian. Militarrek Loiolako kuarteletik atera ziren eraikinaren inguruan defentsa perimetro bat antolatzen, edozein erasoarengandik babesteko.



Egian, **Polloeko hilerritik 150 metrora aurkitzen ziren baserriak** hartu zituzten (egungo Gabriel Aresti kalean dauden baserriak dira), bertatik Loiolako kuartelak menderatzen baitira. Gainera, Aldakonea aldean dagoen **Behartsuen Ahizpen komentua** hartu zituen mendean, bertatik Okendo kalean zegoen Gobernu Zibila eta *Maria Cristina* hotela kontrolpean izateko aukera baitzuten. **Ametzagaña** mendia ere hartu zuten

UZTAILAK 23 osteguna:

Errepublikazaleek **Kasinoa eta Maria Cristina Hotela** beren esku hartu izanak asko ahuldu zuen gainerako posizioetan aurkitzen ziren matxinatuen adorea: Milizianoen presiopean, matxinatuek **La Equitativa** eraikina (Grosen) uztea erabaki zuten, baita *Principe de Saboya* hotelak eta **Urumea** frontoiak: Ilusenti aldera, tiroketa gogor baten ostean, militar matxinatuak Aldakonea gaineko **Behartsuen ahizpen komentutik erretiratu** ziren.

9) Onkologiko zaharraren aparkalekua

Hemen, Behartsuen Ahizpen komentuari buruzko informazio gehiago emango dira. Bertatik ikusten dena erraz ulertarazten du eraikin horren garrantzi militarra.

UZTAILAK 21, asteartea

17:00 aldera, Cazorla Guardia Zibileko kapitainaren agindupean, falangista talde bat, guardia zibil eta asaltoko guardia batzuek **Maria Cristina hotela hartu** zuten: Hotelaren aurrean elkartuta zeuden errepublikaren aldeko karabinero talde bat eta jende multzo baten aurka tiro egin zuten (bi pertsona hil zituzten) eta hainbat gatibu hartu zituzten, hotelean sartuz. **Ijentea kaleko Círculo Easonense** (egungo *Oiartzun* gozotegia dagoen eraikinean) eta **Komandantzia Militarra**, baita Lasala plazako **Marinako Komandantzia** jada militarren eskuetan zeuden. **Ijentea kaleko Kasinoan** (Egungo udaletxea da. Orduan hutsik zegoen) artilleriako soldadu batzuk, 12 guardia zibil inguru eta hainbat falangista gotortu ziren. militarrek **Groseko Iztueta kaleak Frantziako paseoarekin osatzen duen izkinan metrailadore bat kokatu zuten**, Iparreko tren geltokiko lorategian. Metrailadore horrek, hainbat miliziano hiltzeaz gain, errepublikazaleen ibilgailuak eta Gurutze Gorriko anbulantziak Gros eta Egia auzoen artean igarotzea galarazi zuten 24 orduz baino gehiago.

UZTAILAK 23, osteguna

Milizianoek **Iztueta kaleko metrailadorea eraso zuten**, soldadu batzuen laguntzaz **mendiko kanoi bat erabiliz**: Iparragirre kalearen bukaeran kokatu zuten kanoia, eta metrailadorearen tiropean lau kanoikada bota zituzten, metrailadorearen posizioan zaurituak eraginez. **Miliziano gazte batek**, bere burua arriskatuz, lorategiko harresien gainetik **bi esku-bonba** jaurti eta metrailadorako matxinatuekin amaitu zuen.

La Equitativa gotorturik aurkitzen ziren matxinatuak eraso zituzten 15 miliziano: **Kanoi bat** jarri zuten eraikinaren aurrean, inguruko gasolina-hornigailu baten atzealdea baliatuz, *La Equitativa* tiro egiten zieten bitartean, **lau hildako** izan zituztelarik. **Bost kanoikada bota zizkieten arren, behin bakarrik asmatu** zuten bete-betean. Azkenean, tiro zaparrada baten erdian, milizianoek atzera egin behar izan zuten. Matxinatuek zaurituak jasotzera joandako anbulantziari ere tiro egin zioten. Beranduago, Kasinoa eta *Maria Cristina* hotela errepublikazaleen esku erortzean, milizianoen presiopean, matxinatuek *La Equitativa* eraikina uztea erabaki zuten.

Principe de Saboya hotelak eta *Urumea* frontoiak osatzen zuten etxadiko frankotiratzaileek, Groseko miliziano errepublikazaleak bost egunez estutasunean mantendu ostean, oharkabean ihes egitea lortu zuten.

10) Amaetxea zaharra (Nazaret) (Aldakonea 36)



Hemen azalduko da nola 1936ko abuztuak 17an “Almirante Cervera” eta “España” gerra itsasontziek Donostia bonbardatu zuten eta toki honetan kokatzen zen Amaetxea txikitu zuten.

ABUZTUAK 18: eguerdi aldera, **Almirante Cervera** eta **España**, espainiar matxinatuen bi guda itsasontzik, Egia auzoko Aldakonea 44an kokaturiko ama etxeko goiko solairuak eta hegal bat suntsitu zituzten. Atotxa pasealekura begira zegoen eraikinaren parte izan zen suntsitutakoa. Ez zen hildakorik izan, baina **hiru pertsona zauritu** ziren apurtutako kristalen ondorioz.



Amaetxeko bonbardaketa izan zen eraso zabalago baten parte: Egun berdinean Gros eta Egia auzoak bonbardatu baitziren (Monpas, Ronda, Usandizaga, Kolon, Peña y Goñi, Mandasko Dukea)

11) Zuhazti plazaren izkina Aldakonea eta Mandasko dukea kaleekin



Toki honetan aipatuko da 1934ko abenduak 21ean gertatutakoa: 1934ko urrian izandako iraultza saio hutseginaren ondoren zegoen giro politiko gogortua eta nola polizia bat eta ustezko ekintzaile politiko baten arteko ustezko tiroketa batean, Pilar Gomez gaztea hil egin zen inguru hartan.

Garaiko giroa: 1934ko Iraultza eta *Ardoaren Gerra*
Bortxakeri politikoa: Polarizazioa

1934/12/21, **19:30 inguruan polizia agente** bat eta panfletoak banatzen omen zegoen **susmagarri** baten arteko tiroketa batean Pilar Gomez, 18 urtekoa, zauritu eta hil zuten (egungo Mandasko dukearen pasealekuaren hasiera-**lztueta kalea-trenbideko zubia bat egiten duten tokian**). Ez zegoen garbi nork bota zuen Pilar hil zuen tiroa.

Gerra bezperako bortxakeri politikoa

Hildakoak:

1. Manuel Carrión Damborenea, Ezkurra Hoteleko zuzendaria eta Falangeko kidea
2. Manuel Andrés Casaus, aitzindari errepublikazalea, Manuel Azañaren Segurtasuneko Zuzendari Nagusi ohia eta “La Prensa” egunkariko jabea
3. Polizia agente bat eta panfletoak banatzen omen zegoen susmagarri baten arteko tiroketa batean Pilar Gomez, 18 urtekoa, zauritu eta hil zuten.
4. Manuel Banus Agirre, 16 urte, falangista.

12) Frantziskotarren eliza

Errepublikaren aurkako estatu kolpe hutseginak Errepublikaren agintea krisian jarri zuen eta bere ordez langile erakundeek boterearen jabe izan ziren denbora batez, faxisten aurkako errepresioa erabiliz. Horretarako, behin-behineko espetxe moduan erabili ziren hainbat eraikin, adibidez, Frantziskotarren eliz hau.



13) Gladis eneko parkearen sarrera



En una fotografía de la revista de Almería, así destruida, por un avión, dice: "manteniéndose durante el último año, hasta la última hora, por la determinación y agotamiento de los soldados de la columna".

Hemen bi kontu izango ditugu aipagai:

-Mandasko dukearen kalea Egia kalearekin bat egiten duen lekuan zegoen etxebitza batek 1936ko abuztuak 17an "Almirante Cervera" eta "España" gerra itsasontziek Donostia bonbardatu zutenean suntsitua izan zen, hildakoak eta zaurituak eraginez.

-Teila fabrika zaharra non zegoen tokia (puntu honetatik ikus daitekena) aipatuko dugu. Hementxe Egiako auzokideek barrikada sendo bat egin zuten adreiluz 1936ko uztailaren 19an, Loiolako koartelatik etor zitezkeen militarrek pasa ez zitezkeen. Militarren konboi txiki bat (ibilbigailu blindatu bat eta bi kamioiez osatua) barrikada suntsitu zuen, tentsioa areagotuz hirian.



UZTAILAK 19 igandea: Egiako gainan, Loiolara doan errepidean, **barrikada** handi bat jarri zen, ibilgailuen igarotzea oztopatzeko. Bizilagunek **adreilu lantegiko** (egun Egia kaleko 5. ataria dagoen tokian zegoen) materiala erabili zuten barrikada sendoak eraikitzeko.

ABUZTUAK 18: eguerdi aldera, **Almirante Cervera** eta **España**, espainiar matxinatuen bi guda itsasontzik Donostia bonbardatu zuten, zehazki Gros eta Egia auzoak bonbardatu baitziren (Monpas, Ronda, Usandizaga, Kolon, Peña y Goñi, Aldakoneako Amaetxea eta Mandasko Dukea).

Obus bat zazpigarren eta bederatzigarren atariak hartzen zituen eraikinean erori zen (gaur egun Mandasko Dukearen pasealekuaren bukaerako atariak). Honek Tabakalera eta Maria Cristina parkearen aurrean kalte handiak eragin zituen. Erasoak hildakoak eta zaurituak eragin zituen.